

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA**789/2022 prozedura arruntera epatzearen iragarkia**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, jakitera ematen da EAeko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako salari espedientea aurkeztu eta bidali zaiola Sindicato Ela / Ela Sindikatuak Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 12ko 29/2022 Foru Dekretuaren aurka jarritako 789/2022 administrazioarekiko auzi errekurtsuan, prozedura arruntaren barruan. Hain zuzen, foru dekretu horren bidez indargabetu ziren, legez baliogabeak direlako, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan baldintzak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 26ko 36/2017 Foru Dekretuaren 101. eta 102. artikulua, borondatezko erretiroagatik sariei eta karrerako funtzionario izateari uko egiteko pizgarriei buruzkoak.

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa duen oro autoetan agertu eta pertsonatu dadin. Horretarako, bederatzi egun izango ditu, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 23a

Funtzio Publikoko zuzendaria
ADOLFO LANDER VERA